


ERANSKINAK

I. eranskina. Ikastaroaren itxura.

Ikastaroa Moodle plataforman sortu egin da, baina ez dago oraindik Interneten publikatuta; izan ere, horretarako baimen bereziak behar dira, erakunderen batek lagata. Hori dela eta, ikastaroaren bideo zein argazkiak atxikitzen dira jarraian, plataformaren itxura ikusi ahal izateko.

Ikastaroaren bideoa:

https://drive.google.com/file/d/1Xxw_xC0chzvKLbKAwcYTWCCChHLH7JqkW/view?usp=sharing

Ikastaroaren argazkiak:

The screenshot shows a web browser window displaying a Moodle course page. The browser's address bar shows the URL `localhost/course/view.php?id=2`. The page title is "Hizkuntza eta generoa". The user is identified as "Garazi Martínez de Igidua" (Estudiante). The page layout includes a left sidebar with navigation options like "Hizkuntza eta generoa", "Participantes", "Insignias", "Competencias", "Calificaciones", and "Área personal". The main content area features a header "Hizkuntza eta generoa" with a settings icon, a breadcrumb "Área personal / Cursos / Hizkuntza eta generoa", and a section titled "Sarrera" (Introduction) with a "Su progreso" (Your progress) link. The introduction text is displayed in large, colorful, block letters: "HIZKUNTZA", "ETA", and "GENEROA". Below this, there is a section "Hizkuntza eta generoan murgiltzen" (Engaging in language and gender) with a list of activities: "1. IRAKURGAIA: Hizkuntza eta generoan murgiltzen", "1. ATAZA: Curriculum ezkutua", "1. ATAZA", and "Hizkuntza eta generoan murgiltzen foroa". Each activity has a corresponding icon and a checkbox on the right.

1. Irudia: Ikastaroaren pantaila-argazkia (1)

Curso: Hizkuntza eta generoa

localhost/course/view.php?id=2

Ikastaroa

Garazi Martínez de Igidua
Estudiante

Hizkuntza eta generoa

Participantes

Insignias

Competencias

Calificaciones

- Hizkuntza eta generoan murgiltzen
- Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora
- Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan
- Hitzik gabeko komunikazioa

Área personal

Inicio del sitio

Calendario

Archivos privados

Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora

- 2. IRAKURGAIA: Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora
- 2. ATAZA: Ezagutzen transmisioa
- 2. ATAZA
- Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora foroa

Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan

- 3. IRAKURGAIA: Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan
- 3. ATAZA: Ipuinen azterketa
- 3. ATAZA
- Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan foroa

Hitzik gabeko komunikazioa

- 4. IRAKURGAIA: Hitzik gabeko komunikazioa
- 4. ATAZA: Materialen egokitzapena
- 4. ATAZA
- Hitzik gabeko komunikazioa foroa

2. Irudia: Ikastaroaren pantaila-argazkia (II)

II. eranskina. “Hizkuntza eta generoan murgiltzen” irakurraia



Zergatik ikastaroa?

XXI. mendean oraindik ere generoen arteko ezberdintasunak nabariak dira bizitzako esparru gehienetan. Alabaina, gizartea eraldaketarako bidean dabil eta eskola ezagutza berri horiek demokratizatzeko baliabidea da (Steilas, 2015). Hau da, derrigorrezko hezkuntza formala ezinbestekoa da genero ezberdintasunak murrizteko eta bidezkoagoa den gizartea eskuratzeko.

Halaber, genero ezberdintasun hauek indartzen duten elementuak ugariak dira, baina hizkuntzek, euskarak barne, bereziki paper garrantzitsua dute gizartearen baloreen eta pentsaeren transmisioan (Steilas, 2015). Beraz, hizkuntza sexistari uko egitea eta hizkuntza inklusiboaren aldeko apustua egitea pertsona guztiak aitortzeko eta errespetatzeko bidea da, haien generoa kontuan hartu gabe. Honek zalantzarik gabe, ikasleengan eragin zuzena izango du.

Irakasleen formakuntza

Irakaslearen hasierako prestakuntza unibertsitatean egindakoa da, eta hezkuntzari buruzko ezagutza orokorrak eta graduatu titulua lortzeko balio du. Hala ere, titulu bat edukitzeak ez du bermatzen irakasleak ezagutzak erabat menderatuko dituenik.

Horregatik da hain garrantzitsua **etengabeko prestakuntza**, gero eta gehiago eskatzen baitu gizarteak kalitatezko hezkuntza eta etengabeko berrikuntza. Horretarako ikastaro edo mintegietan parte hartzea borondatezko aukera izan arren, beharrezko baliabidea da ezagutzak eguneratuta eduki nahi badira eta egungo gizartera egokitutako hezkuntza-metodologia berritzaileak garatu nahi badira. Aukera horietako bat MOOC ikastaroak dira, teknologia berriei esker edozein lekutatik online modalitatearekin ikasteko aukera ematen digutenak. Beraz, *e-learning* ikaskuntza honek aukera paregabea eskaintzen digu etengabeko prestakuntza izateko.

Horrez gain, hizkuntza eta generoari buruzko euskarazko ikastaro bat sortzeko beharra sumatzen genuen, horren ardatza hezkuntza izanik. Horrela, irakasleak lan-jarduera garatzeko adibide eta baliabide erabilgarriekin hornituko baitzarete.

Zer da hezkidetza?

Euskaltzaindiaren hiztegian (2020), hezkidetza horrela definitzen da: *“generotik at egiten den pertsonen hezkuntza da, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio, portaerak eta abar kontuan hartu gabe heztea”*.

Gizarteratzen prozesuan, “mutil” ala “neska” lez klasifikatuko gaituzten estereotipoak ugariak dira: jostailu motak, sentimenduak, koloreak, jarrerak, ezaugarriak, arropak, eta abar (Ugarte, Otaduy, & Irigoyen, 2012). Alabaina, askotan, gure interesak ez datoz bat gizarte patriarkalak duen pentsaerarekin. Beraz, gure nortasuna askatasunez adierazteko beste bide batzuk hartzea erabakitzen dugu.

Iglesias eta Sánchezen (2017) arabera, hezkidetzak askatasun hori bermatzeko balio digu; gizarteratze-prozesua genero estereotipoetatik at bizitzeko. Horrez gain, gaur egun emakumeak duen gutxiagotasun egoerarekin amaitzeko tresna da. Dena den, normala den galdera izango duzue buruan: **nola lortu eskola hezkidetzaila?**

Betaurreko moreak

Feminismoak betaurreko moreak janztea proposatzen du (Ugarte et al., 2012). Honakoa metafora bat baino ez da: sozializazio-prozesuko inposaketak era kontzientean identifikatzea eta proposamen askeagoen hausnarketa bideratzeko mekanismoa. Izan ere, genero-sexu estereotipoak gainditzen ez diren heinean, diskriminazioak jarraitu egingo du, baita genero desberdintasunak ere, emakumeak ahulduz.

FEMINISMOA

Sexuen arteko berdintasun politiko, ekonomiko, pertsonal eta soziala lortzea helburu duen mugimendu soziala.

(Bejarano, Martínez, & Blanco, 2019)

Oinarrizko kontzeptuak

Sexua eta generoa kalean maiz entzuten ditugun hitzak izan arren, jendartean horien inguruan dagoen nahasmendua edo ezjakintasuna nabarmena da. Horregatik, hizkuntza, generoaren ikuspuntutik aztertu nahi badugu, lehenik eta behin, errealitate konplexu honen inguruko kontzeptuak argi izan beharko ditugu. Izan ere, Pajuelok (2016), "Gehituko elkarteko" (Euskal Herriko gay, lesbiana, bisexualen eta transexualen elkarte) kideak azpimarratzen duen moduan, ezagutza eta formazio arazo handi bati aurre egiten dio gizarteak.

Generoa eta sexua gauza bera al dira? Pentsak maiz sinonimotzat erabili ohi ditu, baina pertsonen jaiotzetiko ezaugarriek bere generoa edo identitatea definitzen dutela pentsatzea akats larria da. Non geratzen dira transexualak edo transgeneroak sistema horretan? Teoria ezberdinek azaldu izan dituzte kontzeptuok, adostasun batera ailegatu barik. Guk ordea, honela definituko ditugu:

Generoa

Maskulinoa eta femeninoa. Iturrioren (2016) hitzetan, "gizarteak sortzen eta barneratzen dituen balioen, estereotipoen edota rolen multzoa da generoa". Hau da, eraikuntza sozial eta kulturala da. Genero estereotipo hauek, bi ezaugarri dituzte (Emakunde, 2008):

Hierarkizazioa:

Maskulinoa femeninoaren gainetik

Osagarritasuna:

Genero batek erreprimitzen duena, besteak indartzen du. Esaterako, maskulinoak sentimenduak erreprimitzen ditu eta femeninoak indartu.

Sexua

"Arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoen multzoa da" (Euskaltzaindia, 2020).

Jaiotzerakoan ditugun ezaugarri biologikoen arabera egindako banaketa: gizona edo emakumea (Emakunde, 2008).

Sexu-genero sistema

Sexua (biologikoa) eta generoa (kulturala) nahitaez loturik egon behar izana, alegia, pertsonen jaiotako ezaugarriek bere generoa edo identitatea definitzea (Aguilar, 2008). Gizon maskulinoez eta emakume femeninoez osaturiko gizarteak definitzen duen sistema da.

Ondorioz, gizon eta emakumeei bizitza programa ezberdinak ezartzen zaizkie jaiotako unetik eta gizarteak, ekintzak ezberdinen bidez, sistema honen iraunkortasuna sustatzen du. Hala ere, Glaukomak *Gure Kaiola* abestian dioen lez: *"Eztao generoik genitaletan. Egitura mentala da, aber sartze zaigun gaztan!"* Hortxe dago gakoa!



[Gure Kaiola](#)

Hizkuntza al da sexu-genero sistema mantentzen duen ekintzetako bat?

Aniztasunean murgiltzen

Ikusi [bideoa](#) eta hausnartu kontzeptuon inguruan:

- Genero identitatea vs. genero adierazpena
- Sexu biologikoa vs. sexu orientazioa
- Sistema bitarretik haratago



Legeek zer diote?

Pedagogia feministak

Historian zehar, pedagogo eta irakasle anitzek, printzipio feministetatik abiatuta, hezkidetzaillea den hezkuntzan pentsatzearen garrantzia adierazi dute (Maceira, 2006). Era berean, hezkuntza zein gizarte arloan dauden genero ezberdintasunak erakusten dituzten euskarri teoriko eta praktikokoak ezagutarazi dituzte; horrela, emakumeek eta gizonak gizartearen eraikuntzan bete duten tokiaz jabetzeko.

Hori horrela izanik, zenbait pedagogia feminista sortu izan dira, zeinen oinarria genero-berdintasunaren printzipioa eskuratzen laguntzen duten proposamen hezkidetzailleak egitea den. Maceiraren (2006) esanetan, pedagogia hauei esker, historikoki ezagutzaren arloan emakumeen errekonozimendua galarazi duten elementuak identifikatu dira eta ondorioz, alternatiba ezberdinak proposatu dira. Izan ere, zenbat alditan entzun dituzue eskolan gizonen lorpenak? Eta emakumeenak? Gizonak izan al dute historiaren bilakaeran garrantzi handiagoa? Emakumeen lana gutxietsi eta estali izan da? Hau da, pedagogia feministek, pedagogiaren eremuan betaurreko moreak jantzi dituzte.

IKERTU

PEDAGOGO FEMINISTAK

Rosa Sensat i Vila (1873-1961)

Gabriela Mistral (1889 – 1957)

Olga Cossettini (1898- 1987)

Zulu Sofola (1935 – 1995)

Susan Brownell Anthony (1820 - 1906)

Mafalda musika taldearen eta Rebeca Lanen "Las que fataron" abestian, historiaren bilakaeran garrantzitsuak, baina ahaztuak, izan diren hainbat emakume agertzen dira.

ENTZUN



[Las que faltaron](#)

Hezkidetza eta genero-berdintasuna historian

Pedagogian doktoratuak diren Bejarano et al. (2019) diotenez, Espainian, **XX. mendearen hasieran** esperientzia hezkidetzailleak ezarri ziren eskola batzuetan. Alabaina, **II. errepublikara** arte ez zen maila nazionalean hezkuntza hezkidetzaillea bilakatzearen inguruan hitz egin. Garai honetan hasi ziren lehenengo proposamenak, emakumeentzako hezkuntza-espazioak ugarituz. Esaterako, 1918. urtean Luzurriagak idatzitako hezkuntza programaren 9. puntuak, honakoa jasotzen zuen:

«Sexu bateko eta besteko ikasleen baterako hezkuntzaren aurkako arrazoi psikologikorik ez dagoenez, eta, aldiz, heziketa hori gomendatzen duten gizarte-arrazoi garrantzitsuak daudenez, erakunde guztietan ezarriko da sexuen hezkidetza (...)»

Hala ere, 1931ko Konstituzioan eta 1932ko *“Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako Oinarriak”* legearen zirriborroan ez zen esplizituki hezkuntza hezkidetzaillearen printzipioa jaso. Alabaina, bigarren honek hezkidetzaren kutsuak zituen:

- 4 oinarria: tradizionalki existitzen ziren mutil eta nesken eskolak; hau da, genero ezberdintasunentzako eskolak ez jarraitzea.
- 20 oinarria: emakumezko zein gizonezko irakasleen lana berdina izatea; bien helburua ikasleak heztea izanik.

Geroago, beste aurrerakuntza batzuk egin ziren arren, Guda Zibilaren osteko **Francoren diktadurarekin** batera, aurrerakuntza guztiak desagertu egin ziren, emakumea esparru publikotik berriz ere urrunduz. Dena den, diktaduraren azkeneko etapan eta **Trantsizioan**, iraultza feminista berpiztu zen, genero-berdintasunean lorpen handiak eskuratuz. Hezkuntzan arloan, 1970eko Lege Orokorrak hezkidetzan hobekuntzak bildu zituen, neskek eta emakumeek jasotzen zuten curriculum sexista baztertuz. Hortik aurrera, **demokrazian** zehar, neurri handiago edo txikiago batean, hezkidetza erdiesten laguntzen duten lege eta planak sortu dira. Baina, zein lege nahiz plan ditugu gaur egun abian?

Egungo lege eta planen bilketa

Esan beharra dago, hezkidetzaren inguruko legeak eta planak ugariak direla; izan ere, Euskal Herriko hezkuntza-sistema etengabe dabil lanean, emakume eta gizonen berdintasuna eskuratzeko. Hori dela eta, **padlet** honetan, gaur egunean indarrean dauden lege eta plan ezberdinen bilketa aurki dezakezue. Kronologikoki ordenatuta egoteaz gain, lege eta planen esteka zein hezkuntza hezkidetzaileri egiten dioten aipamenen laburpena topatuko duzue.



Legeri guztia laburbilduz, hezkuntzaren xedea ikasleei formazio integrala eskaintzea da; hots, norberaren nortasuna, balioak, ezagutzak, eta abar erabakitzen laguntzea. Gainera, indibiduoaren eraikuntza askerako, ezinbestekoa izango da irakasten den guztiak hezkidetzaren nolakotasunak izatea. Hortaz, irakasleon lana da ezkutuko curriculumaz kontziente izatea; erabiltzen ditugun baliabideez hausnartuz eta beharrezkoa bada, horiek aldatuz edo egokituz, ahalik eta material eraginkorrenak erabiltzeko.

Beraz, esan dezakegu, aurrekoa eskuratzeko, legeriak bost alderdi orokor lantzen dituela (Eusko Jaurlaritza, 2016):

1. Hezkidetzaren-eredua sustatzea eta genero-ikuspegia curriculumean integratzea
2. Curriculumaren edukia
3. Hezkidetzako material didaktikoak
4. Hezkidetzaren alorreko trebakuntza
5. Genero-indarkeria antzematea eta horri aurre egitea

Eragina eskolan

Nola landu genero aniztasuna?

Ikasle guztiek ez dute ezagutza hauek jasotzeko paradarik edo ez dira lengoaia inklusiboa erabiltzen den ingurugiroan bizi. Horregatik, eskolak eginkizun hagitz garrantzitsua du, izan ere, ezagutza demokratizatzearen boterea du. 6-12 urte bitarteko haur guztiak eskolaratuak egotea derrigorrezkoa denez, toki paregabea da eredu onak eskaintzeko. Gainera, eskola etapan zehar, ikasleen nortasuna garatzen hasten da, hortaz, diskriminatuak sentitzen ez diren konfiantzazko guneak eraikitzeko beharra dugu.

Hori dela eta, Steilasen *"Genero eta aniztasun sexuilerako gidaliburuaren"* (2015) arabera, hezkuntza sistemak aldaketarako eragile aktiboa izan behar du eta ezin dezakegu hurrengokoa ahaztu:

Ikasleak anitzak dira

1. Ez auresuposatu ezer: ez dugu zertan ikaslearen genero-identitatea auresuposatu behar. Eman erabakitze aukerak!
2. Konfiantza giroa sortu: ikasleei hitz egiteko aukerak eskaini, babesezko ingurugiroak bermatuz.
3. Eredu anitzak eskaini: eredu hurbilak (irakasleak, ikasleak, langileak, familiak...) edota eremu zabalean (telebistan, historian, literaturan...). Ez erakutsi eredu hegemonikoak bakarrik; gorputz eta nortasun anitzak aurkeztu erabilitako materialetan.
4. Genero eta sexu aniztasunaren kontrako hizkerari erantzun: bazterkeriak eta bullying-a errotik moztu.

Hezkuntza hezkidetzaillearen ikerketek hainbat arlotan jarri dute arreta, hala nola: curriculum-materialen eduki esplizituan eta ezkutuan (testuliburuak, ikasgelako lan-testuak), eskola-eremuan erabilitako hizkuntzan, irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan, eskola-eremuaren okupazioan, ikasleek ikasgeletan duten ikusezintasunean edo protagonismoan... (Sánchez & Iglesias, 2017). **Ikastaroan, erabiltzen dugun hizkuntza** (ahozkoa zein materialetan idatzita agertzen dena) **zaintzeari erreparatuko diogu**, gainontzeko arloak ahaztu barik.

Gure hitz egiteko erak garrantzi handia du, baita klasean erabiltzen dugun materialak ere. Haatik, ezinbestekoa da erabiliko dugun materialaren inguruan sakonki hausnartzea. Horrela, egun erabiltzen ditugun material askok aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dituztela ohartuko baikara, ipuin edo kanta frankok esaterako. Ez al duzu inoiz pentsatu txikitan irakurritako ipuin ugari sexistak direla? Beraz, ikastaroko III. atalean ikusiko dugun lez, material berriak sortu nahiz bilatu beharko ditugu edo betikoak egokitu.

Curriculum ezkutua vs. Ageriko curriculum

Esan bezala, egunerokotasunean eskolan erabiltzen ditugun materialak eragin zuzena dute ikasleengan. Orokorrean, klasean egingo duguna aurretik planifikatzen dugu eta horrela islatzen dugu curriculumean. Hala ere, planifikatu gabeko ezagutzak ere transmititzen ditugu inoiz. Horregatik, esan dezakegu hezkuntzan ageriko zein ezkutuko curriculum dugula. Zein ezaugarri ditu bakoitzak?

- **Ageriko curriculum:** modu kontzientean planifikatu eta landu egiten dugun programazioa da, non helburuak, metodologia eta ebaluazioa islatzen ditugun (Eusko Jaurkitza, 2016).
- **Ezkutuko curriculum:** klasean era ez intentzionalen irakasten duguna da; hau da, berenberegiz planifikatu ez dena. Ikasleak honen transmisioaz ohartzen ez diren arren, ikasketa hauek bereganatzen dituzte (Ugarte et al., 2012).

Pentsa dezakezu curriculum ezkutuko adibiderik?

Zer egin dezaket nik?

Ukaezina da norberak bakarrik ez duela mundua aldatuko, baina beharbada gure ikasleen bizitza alda dezakegu. Hori dela eta, sarri gure buruari honako galdera planteatzen diogu: Eta nik, zer egin dezaket nire inguruko egoera aldatzeko?

Lehenik eta behin, gogoratu beharra daukagu lanean ez gaudela bakarrik, beste irakasleak, gurasoak eta abar ere gure ikasleen hezkuntzaren eragile direla. Beraz, haiengana jo dezakegu laguntza eske. Gehitzeko, hagitx garrantzitsua da eskola guztiak norabide berean lan egitea. Horregatik, hona hemen eskola eremuan planteatu ditzakegun ekintza inklusiboen dekalogo:

- 1 Bultzatu ingurune inklusiboa: Zero tolerantzia bullying-ari
- 2 Komun komunak: saihestu genero hautaketa suposatzen duten espazioak
- 3 Aldagelen gestio arduratsua. Ikasle transgeneroak baldin baditugu zer?
- 4 Patioaren gestio arduratsua: leku bera al dute genero guztiek patioan? Bertan ere, ekintza hezkidetzailleak bideratu.
- 5 Erabili haiek hautatutako izena, haur transgeneroetan batez be. Nola jakin? Ikasturte hasieran galdetu.
- 6 Inprimakietan binarismoa baztertu. Beharrezkoa al dugu ikaslearen edo guraso/tutorearen generoa jakitea?
- 7 Ikastolan irakasle, gurasoen, langileen zein ikasleen etengabeko formakuntza bultzatu
- 8 Materialak elkarbanatu: ikastolako irakasleekin, sarean...
- 9 Liburutegian: genero-sexu aniztasuna bultzatu eta sexismoa baztertu. Behar izanez gero, liburuak egokitu.
- 10 HIZKERA INKLUSIBOA ERABILI: edozein arlotan, edozein adinetan, edozein momentutan eta edozeinen aurrean.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguilar, T. (2008). El sistema sexo-género en los movimientos feministas. *Amnis: Revue de Civilisation Contemporaine de l'Université de Bretagne Occidentale*, 8. Hemendik eskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2870086>
- Arrondo, P., Perea, P., & Sagastume, N. (1992). Hezkidetzeta. *Jakingarriak*, 22, 20-23. Hemendik eskuratua: <http://ebiltegia.mondragon.edu:8080/xmlui/handle/20.500.11984/1472>
- Bejarano, M. T., Martínez, I., & Blanco, M. (2019). Coeducar hoy. Reflexiones desde las pedagogías feministas para la despatriarcalización del curriculum. *Tendencias Pedagógicas*, 34, 37-50. <http://dx.doi.org/10.15366/tp2019.34.004>
- Carki Productions. (2017). *Zer da sexu aniztasuna? Azalpen ulerterraza*. [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=DbHJcmhM50k>
- Emakunde (2008). *Terminoen glosarioa*. Emakunde. 2020-10-20an hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20010/eu/contenidos/informacion/glosario/eu_gizonduz/glosario.html#20
- Euskaltzaindia. (2020). Generoa. In *Euskaltzaindiaren hiztegia*. 2020-10-20an, hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&Itemid=411&adm=&aurreratu=6&err=&eus=&gar=&kat=&lang=en&layout=aurreratua&num=&ona=&orra=163&sai=&sarrera=&view=frontpage
- Euskaltzaindia. (2020). Sexua. In *Euskaltzaindiaren hiztegia*. 2020-10-20an, hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=sexua&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai
- Eusko Jaurlaritza. (2016). *Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hemendik eskuratua: https://www.euskadi.eus/web01-s2hhome/en/contenidos/enlace/fp/eu_evalua/adjuntos/fol.pdf
- Glaukoma. [GlaukomaBand] (2018). *Gure Kaiola* [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=laLPRhyhGrQ>
- Iturrioz, J. (2016). *Sexua eta generoa*. [Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea]. YouTube. Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=vysyKXEuGPE&feature=emb_title

- Maceira, L. M. (2006). Más allá de la coeducación: Pedagogía feminista. *Educar. Revista de educación*, 36, 27-36. Hemendik eskuratua: http://www.patrimoniocultural.gob.cl/dinamicas/DocAdjunto_1423.pdf#page=27
- Mafalda eta Rebeca Lane. [Mafalda] (2018). *Las que faltaron-Videolyric oficial* [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=ji5CVZczEks>
- Pajuelo, A. (2016). *Sexua eta generoa*. [Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea]. YouTube. Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=-GrjTzsh19k&feature=emb_title
- Sánchez, A., & Iglesias, A. (2017). Coeducación: feminismo en acción. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feminista*, 2 (1), 1-6. <http://dx.doi.org/10.17979/arief.2017.2.1.2115>
- Steilas: LFTBIQ taldea. (2015). *Genero eta aniztasun sexuilerako gidaliburua*. Hemendik eskuratua: <https://steilas.eus/files/2015/05/Genero-eta-aniztasun-sexuilerako-GIDA.-STEILAS.2015.pdf>
- Ugarte, Otaduy eta Irigoyen (2012). *Irakurgaia, hezkidetzaren alde busti!: Betaurrekoen garrantzia*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta berdintasunerako Zuzendaritza

III. eranskina. “Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora” irakurgaia



Hizkuntzaren garrantzia

Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera (2020), hizkuntza *“gizatalde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea”* da; hau da, komunikazio sistema bat da eta horren bidez, informazioa, ideiak, sentimenduak, pentsamenduak eta abar adierazten ditugu.

Horrez gain, Emakunderen arabera (1988), hizkuntzak errealitatea islatzen eta sortzen du; izan ere, honek inguruneko egoera soziokulturala irudikatzen du. Esaterako, euskarak Euskal Herriko nortasuna erakusten du. Gainera, gizartea aldatzen doan heinean, hizkuntza ere aldatu egiten da. Hala ere, alderantzizko bidea ere posible da, hizkuntza moldatzea edo aldatzea gizartea eraldatzeko.

Hortaz, hizkuntza generoarekin lotuz, generoen arteko ezberdintasunak ere hizkuntzan islatzen direla pentsa dezakegu. Ondorioz, hizkuntza sexista bada, gizarteak ere kutsadura sexistak aurkeztuko ditu. Zorionez, hizkuntza aldatzeko gaitasuna dugu herri berdinzaleagoa erdiesteko!

Euskara sexista al da?

Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen "Hizkuntza inklusiboa" ikastaroan (2020), 1977. urtean Alvaro García Meseguer-ek 'Lenguaje y discriminación sexual' liburuan argitaratu zituen datuak jasotzen dira. García-ek hizkuntz ezberdinen kutsu sexista neurtu zuen eta jasotakoaren arabera, **euskarak %5eko zama sexista** baino ez du. Inguruko hizkuntzekin konparatuta, harro egoteko datua: frantsesak %40koa, gaztelaniak %80koa eta ingelesak %15koa.

Datu horiei erreparatuta, euskararen kasuan hausnartzeko beharrik ez dagoela pentsa genezake. Egia da euskarak ez duela genero gramatikalik (hitanoa salbu), neutroak baitira: ikasle, irakasle, zuzendari, guraso, garbitzaile eta abar. Baina, horrek esan nahi du euskararen sexismorik ez dagoenik?

Miren Azkaratek (1993), Álvaro García-aren hitzak zalantzan jarri zituen: *"en el caso del vasco (...) no se provoca ocultación de la mujer ni se produce sexismo (...) En consecuencia, el vasco es una lengua poco sexista"*. Izan ere, nahiz eta "hizkuntza sexista" ez izan, "hizkuntzaren erabilera sexistaz" hitz egin dezakegu.

ADIBIDEZ

- Gurasoen ardura izango da haien **semeen** hamaiketako egokiaz arduratzea
- Gurasoen ardura izango da haien **seme-alaben** hamaiketako egokiaz arduratzea





Tribuaren Berbak-eko "Euskara sexista al da?" saioan proposatutako asmakizunean, euskarak genero markarik ez duen arren, pertsonok jarrera androzentrikoa dugula erakutsi zuten.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoak/1846338/bideoa-euskara-hizkuntza-sexista-al-da-asmakizuna/>

Tribuaren Berbak

Guk ildo bera jarraituz, eskola etapan (Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan) dauden 20 ikaslerekin (4-10 urte) esperimentu bat egin dugu. Suhiltzaile bat eta garbitzaile bat margotzeko esan diegu eta hauek izan dira emaitzak:



Ondoriozta dezakegu, gure ikasleek, nahiz eta oraindik gazteak diren, sozializazio prozesuaren ondorioz, genero kutsadura deritzona pairatzen dutela. Guk hezitzaile moduan, eredu onak eskaini behar dizkiegu.

Beraz, ikastaro honen bigarren atalaren xedea, gaur egun euskaraz existitzen diren **erabilera sexistak identifikatzea** eta **horiek ekiditeko proposamenak** egitea da.



Eta nik, zer alda dezaket?

Ugariak dira euskararen erabilera sexistaren azterketak, baita proposamen inklusiboagoak iradokitzen dituzten gidak ere. Hori dela eta, jarraian, azpian dauden gida eta ikerketa ezberdinek bildu dituzten adibideak eta proposamenak aurkituko dituzue, beti ere, hezkuntza arlora moldatuak.

IKERTU

- Amaia Alvarez (2004): *Euskara hizkuntza sexista al da?*
- Agurtzane Juanena (1991): *Hizkuntz sexismoa eta euskara.*
- Emakunde (1988): *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak.*
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2011): *Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako jarraibideak.*
- Marije Apodaka eta Eduardo Apodaka: *UPV/EHU-n Euskararen Eta Irudien Erabilera Ez-sexistarako Gida*
- Miren Azkarate (1993): *Emakumea eta euskara.*

Genero kutsadura

Izen neutroak genero bakarrarekin identifikatzen ditugunean, horri genero kutsadura deritzogu; esaterako: "suhiltzailea=gizona", "garbitzaile=emakumea". Hala ere, euskarak berez ez du genero bereizketarik egiten, bai ordea gizarteak eta ondorioz, azkenengo urteetan sexismoa ugaltu duten bi egitura berri agertu dira:

“-SA” ATZIZKIA

Historikoki zubereraz bakarrik erabili izan den atzizkia da, baina euskara batuan zabalitzen ari dena: *alkatesa, bertsolarisa, idazkarisa, aktorea...* Kasu honetan, inoiz generorik izan ez duten *-ari* (dantzari) eta *-le* (idazle) erator-atzizkiei, genero maskulinoa ezarri diegu eta hortaz, dagokien femeninoa eratzeko beharra sortu zaigu. Hala ere, euskaraz, *-sa* atzizkia saihestu behar da; izan ere, testuinguruak argituko digu generoa.

SEXUAREN ZEHAZPEN DESOREKATUA

Aurrekoarekin jarraituz, gizarteak duen ikuspegi sexistari aurre egin nahi bazaio eta sexua zehaztu nahi bada, euskarak baditu betiko *jaun, andre, emakume, gizon...* hitzak. Ordea, hauen tratamendua orekatua izan beharko litzateke. Hau da, maiz emakumeekin baino ez da zehazten generoa (emakume medikua / ~~gizon~~ medikua). Inplizituki, lanbide hori gizonezkoena dela esaten gaude; beraz, erabiliko badugu, era simetrikoan agertu beharko da.

Maskulino orokortzailea

GIZON IZENAREN ERABILERA

Sarritan emakume zein gizonak izendatzeko “gizon” izena erabiltzen da. Honako hau egiterakoan, emakumeak gutxiesten ditugu, ikusezin bihurtuz. “Gizaseme” eta “gizonezko” hitzekin ere, berdina gertatzen da. Horregatik, hiru termino hauek gizonezkoen inguruan bakarrik hitz egiterakoan erabiltzea gomendatzen da.

IZENA + GIZON HITZ ELKARTUETAN

Bada euskaraz egitura bat emakumezkoak gutxiesten dituen, modu egokian erabiltzen ez bada behintzat: “izena + *gizon*” hitz elkartuak. Esaterako, *elizgizon, gudagizon, plazagizon, itsasgizon, legegizon...* Honako hitz hauek, literaturako nahiz historiako edukietan aurki ditzakegu. Beraz, emakumeen gutxiagotasuna ekiditeko, izenari *-ari* atzizkia gehitzea gomendatzen da: *gudari, legelari...* Baina, zer egin *-ari* atzizkiarekin sortu ezin daitezkeen hitzekin, **elizlari* kasu? Horrelakoetan, “gizon / emakume” edo “jende” erabil daitezke.

“GIZA-” ETA “ANAI-” OINARRIAK

“Giza-” gizon hitzetik datorren oinarria da eta egunerokotasunean erabiltzen ditugun zenbait hitzetan aurki dezakegu; hala nola, *gizaki*, *gizarte*, *gizaldi*... Honen harira iritzi ezberdinak egon dira. Gipuzkoako Foru Alundiak esaterako (2011), “gizon” hitzaren konotazio bera ez dutela defendatzen du; Miren Azkaratek (1993) ostera, emakumezkoak baztertzen dituen hitzak direla dio. Hori dela eta, guk, ahal den neurrian “jendarte”, “pertsona edo gizon-emakumeak” eta “belaunaldi” izenak erabiltzea proposatzen dugu.

ENTZUN



Bagare

“Anai-” erroarekin ere berdina gertatzen da. Gogartzen ahal duzue Gontzal Mendibil eta Xeberriren “Bagare” abestia? “GUZTIOK ANAIK GARA” kantatzen zuten euskal herriko jendartearen batasuna adierazteko; baina ez al gara emakumeok horren parte? Horregatik, guk honako ordezekoak proposatzen ditugu: *haurrideak* (*anaiak* hitzaren orde) eta *haurridetasuna* (*anaitasunaren* orde).

BIKOTE IZENEN ORDEZKO PLURALAREN ERAKETA

Erdararen eraginez, ohikoa bihurtu da betiko bikote-izenak alde batera uztea eta pluralerako gizonezkoak hartzea plural-marka erantsiz:

- * *aitak* → *guraso edo aita-amak*
- * *semeak* → *seme-alabak*
- * *erregeak* → *errege-erreginak*

Zenbatetan entzun dituzu zure ikasleak **aitak* forma erabiltzen? Zuzendu beharra daukagu?

Hitanoaren erabilera desegokia

Ildo beretik, gaur egun egiten den hitanoaren erabilerarekin ere, emakumea isilpean uzten da. Hitanoa aditzetan sexu-marka adierazten duen tratamendua da; gizonezkoekin *toka* eta emakumezkoekin *noka* erabiltzea eskatzen duena. Alabaina, taldea mistoa denea, ezin daiteke *toka* erabili. Kasu hauetan, *zuka* edo *inperatiboa* erabiltzea gomendatzen da.

* *Ariketa egin ezak* → *Ariketa egin ezazue*

Sexuaren araberako trataera ezberdina

- Emakumeen egoera zibila adierazteko "Andre" edo "Andere/Andereño" erabiltzen dira, ordea, "Gizon" edo "Jaun" egoera zibiletik at ere erabiltzen dira.
- Hainbat testuingurutan, "-(r)en emaztea", "-(r)en andrea" eta "-ren alarguna" erabiltzeak, gizonen nagusitasuna eta emakumeen dependentzia azpimarratzen du. Hori ekiditeko, dependentzia harremanak suposatzen dituzten formak saihestea gomendatzen da.
- Izen-abizenak jartzerakoan tratamendu berdina erabiltzea. Sarritan, gizonezkoa denean abizena baino ez da jartzen eta emakumezkoa denean izen-abizena.

** De Marcosek eta Ainhoa Tirapuk haien liburuak argitaratu dituzte*

Óscar de Marcosek eta Ainhoa Tirapuk haien liburuak argitaratu dituzte

De Marcosek eta Tirapuk haien liburuak argitaratu dituzte

Erabiltzen dituzu abizenak ikasleak izendatzeko? Zenbat mutil? Eta neska?

- Emakumea itxura fisikoarekin eta arlo pribatuarekin lotzea eta gizonak aldiz, gai intelektualekin eta bizitza publikoarekin. Horregatik, emakumeen edo gizonezkoen inguruan zerbait esango denean, komeni da beste generoaren inguruan esango genukeen pentsatzea.

** Irati irakaslea beti dator dotore klaseak ematera.*

Berdina esango genuke irakaslea Jon izango balitz?

Femeninoaren erabilera peioratiboa

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten duen moduan, "emakumeekiko mespretxua hitz, esaera, espresio, adiera, definizio, eta abarretan azaltzen da (...) Badaude ere emakumeei zuzendutako hitz edo esaldi batzuk peioratiboak direnak, eta gizonentzat existitu edota erabiltzen ez direnak"

Gizalege (begirunea) / Emalege (hilekoa)
Gizabakar (norbanakoa) / Emabakar monogamoa)
Gizatxar (gaiztoa) / Ematxar (prostituta)

"Ez duzue potrorik hori egiteko"
"Horiek emakumeen gauzak dira"
"Gizon on bat behar da horretarako"
"Txakurrari hezurra eta emazteari gezurra"

Norberaren konpromisoa

Kontziente gara hizkuntza ohituretan aldaketak egitea zaila dela. Gainera, gramatika zuzena den heinean, zenbaterainoko borondatea dago aldaketak egiteko? Horregatik, guk gida honetan eman dizkizuegun hizkuntza inklusiborako iradokizunak gutxinaka-gutxinaka erabiltzera animatzen zaituztegu.

Izan ere, irakasleok eraldaketa hauek egiten baditugu eta ikasleen aurrean eredu bagara, guk geuk baino ez dugu aldaketa egin beharko; ikasleek jada eredu egokiak hartuko dituztelako eta ez dutelako hizkuntza aldatu behar izango.

Pentsa, zuk zeuk bakarrik 25 pertsonengan eragina duzu. Ez al du merezi haiengatik hizkuntza inklusiboagoa erabiltzea? Álvaro Garcíak esan bezala: **konponbideak hezkuntzan dirau.**

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alvarez, A. (2004). *Euskara hizkuntza sexista al da?* [Iritzi-muinetik]. Erabili.eus. Hemendik eskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/#1
- Amorraniz, K. (2013). Asmakizuna: Euskara hizkuntza sexista al da?. *Eitb: Tribuaren Berbak* [Bideoa]. Hemendik berreskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/1846338/bideoa-euskara-hizkuntza-sexista-al-da-asmakizuna/>
- Apodaka, M. & Apodaka, E. (data barik). *UPV/EHU-n Euskararen Eta Irudien Erabilera Ez-sexistarako Gida*. Hemendik eskuratua: https://www.ehu.es/documents/1734204/1884196/Ez_sexistan_erabiltzeko_gida_EH_U.pdf
- Azkarate, M. (1993). Emakumea eta euskara. *Printza saila*, 7, 69-78.
- EITB. (2013). *Euskara hizkuntza sexista ahal da? Asmakizuna*. [Tribuaren Berbak]. YouTube. Hemendik eskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=bZwp3jsAJB4>
- Emakunde. (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Hemendik eskuratua: http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1303/12-EMA-LEN_eu.pdf
- Euskaltzaindia. (d.b.). Hizkuntza. In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2020-12-05ean hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=hizkuntza&option=com_hiztegia_bilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai
- Fernandez, J. (2020). *Euskararen erabilera inklusiboa. 1. Gaia: "Gizonkera batua" alboratzeko bidean*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (2011). *Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako jarraibideak*. Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pol_clau_guias_publicaciones/eu_def/adjuntos/GFA_Hizkuntzaren_erabilera_ez_sexista.pdf
- Juanena, A. (1991). Hizkuntz sexismoa eta euskara. *Jakin*, 65, 97-110.
- Mendibil, G. [Euskal Karaokeak] (2015). *Bagare (Gontzal Mendibil)*. [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=usnAq0od7f8>

IV. eranskina. “Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan” irakurra



Zer da androzentrismoa?

Androzentrismoa grezierazko *andros* -gizona- hitzetik datorren terminoa da (Instituto Nacional de las Mujeres, 2007) eta Euskaltzaindiaren hiztegiaren (d.b.) arabera, “munduari eta gizarte-harremanei gizonaren (eta ez gizon-emakumeen) ikuspuntutik begiratzea” da. Hots, sexismo forma bat, non gizona eta bere lorpenak unibertsoaren zentroan jartzen diren eta emakumeek egiten dutena ezkututzen den (UNESCO, 2016).

Horrez gain, ikastaroko bigarren atalean aipatu moduan, “mintzaira (hau da, hizkuntza erabiltzeko modua) jendartearen isla izan ohi da. Gure jendartea androzentrikoa eta sexista denez, askotan gizonak eta emakumeak modu ezberdinean tratatu eta emakumezkoak gutxietsi egiten dira mintzairaren bitartez (Reizabal, 2015, 75or.).

Beraz, eskolak kutsu androzentrikoa baldin badu, maskulinitasunari lotutako ezaugarriak pribilegiatuko ditu. Aldiz, feminizotasunari jotzen eta interpretatzen dena devaluatuko du. Gainera, behin eskola etapa bukatutik, honek, ondorioak ditu emakumeen bizitzan; izan ere, datuak erakusten dutenez, emakumeak dira etxeko lanen ardura gehien hartzen dutenak, aisialdirako denbora gutxiago dutenak, prestakuntza akademiko handiagoa izan arren mendeko lanpostuak betetzen dituztenak, elite gidarietatik kanpo daudenak, indarkeria anitzen biktima direnak, eta abar (Valdivielso, Ayuste, Rodríguez & Vila, 2016, 124 or.).

Eskolako materialak

Hezkuntzak, ikuspegi kultural partziala transmititzen du, unibertsala balitz bezala, baina ez da hala, biztanleriaren % 50 falta da (López, 2018). Eskolako materialetako **emakumeen presentziaren gabezia** ukaezina da. Hala ere, maiz ez dugu faltan sumatzen ingurugiro androzentriko batean hezi gaituztelako.

Emakumeen inguruko ezagutzak frogatzeko prest? Egizu [testa](#)

HAUSNARTU



Androzentrismoa hezkuntzan

(Iturria: sormen propioa)

Materialak aukeratzea

Hortaz, **zer egin behar dugu irakasleok?** Curriculum akademiko eta eskolako materialak ebaluatu, androzentrismoa detektatzea helburu izanez (curriculum ezkutua) eta testu liburuetan erreferentzia femeninoen gabezia zuzenduz (material inklusiboak aukeratu edo materialak egokitu).

Oraingo honetan, hezkuntza arloan maiz erabiltzen diren bi materialen aukeraketaren inguruan arituko gara; **kantak** eta **literatura** -ipuinak- hain zuzen ere.

Kantak

Klasean maiz erabiltzen ditugun baliabideak dira, baina transmititzen duten mezuaren inguruan gogoeta egiten al dugu? Bideoan ikus dezakegun moduan, genero guztietako musiketan kanta sexistak aurki ditzakegu. Guk oraingoan, euskal kanta tradizionalak ikertuko ditugu.

ENTZUN



[Musika matxista](#)

IRAKURRI

AITA SEMEAK

*Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan
Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan.*

*Eta lapurrek ohostu dute
Guk gendukana etxean,
Eta gu gaude erdi biluzik
Beti inoren menpean.*

*Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan
Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan.*

*Berriz ikusi beharko dugu
Behi gizona auzoan,
Berrero ere ez da faltako
Trapu zaharrik kakoan.*

*Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan
Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan.*

*Baina gaztea naiz eta daukat
Etorkizuna eskuan,
Ez zaigu hilgo Euskal Herria
Ni bizi naizen artean.*

*Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan
Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan.*

*Geurea dugu erru guztia,
Geurea dugu osoan,
Ez inori ba errua bota
Euskal Herria hiltzean.*

*Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan
Aita semeak tabernan daude
Ama-alabak jokoan.*

Iturria: Euskal Kantu Herrikoia

Sexismorik identifikatzen al duzu?

Euskal kanta tradizionalen harira, Eneritz Gorrotxategi trikilaria abestien letrak aldatu egin ditu inklusiboagoak bihurtzeko.

Hortaz, adi klasean entzuten duzuenarekin eta behar izanez gero, abestiak eraldatu. Gainera, ikasleekin egiteko ariketa polita izan daiteke!



Abesti tradizionalen eraldaketa

<https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/videos/detalle/6033255/video-cambian-canciones-tradicionales-vascas-eliminar-huella-machista/>

Haur- eta gazte-literatura

Haur- eta gazte-literaturaren kasuan, sexismoa pertsonaien, elkarrizketen, ilustrazioen eta abarren bidez transmititzen da. Sexismoa argi eta garbi islatzen da ipuinetan eta, bereziki, ipuin tradizionalen kasuan. Horregatik, garrantzitsua da pertsona helduak kritikoak izatea eta hurrei transmititu nahi dizkieten balioei buruz hausnartzea, irakurgaiak aukeratzeko orduan. Horrela, sexismoa belaunaldiz belaunaldi igarotzea saihestuko dugu. Hona hemen Enguix eta Lópezek (2014) haur eta gazte literaturako sexismoaren aurrean begirada kritikoa izateko proposatzen dituen gakoak:

- 1 Transmittitzen dituzten **balioek mundu hobea eraikitzen lagundu** dezatela. Hezkuntza-balioak eta sustatu beharreko jarrerak berdinak izatea genero guztientzat: lankidetzeta, indarkeria eza, gatazkak modu baketsuan konpontzea, pertsonak zaintzea, erantzukizuna, konpromisoa, independentzia, autonomia, elkarrekiko errespetua, emozioak argi eta garbi bizitzea, enpatia- eta asertibitate-gaitasuna, erabakiak hartzean parte hartzea, etab. Lehiakortasuna eta oldarkortasuna proposatzen duten edo emakumeen jokabideak gutxiesten dituzten irakurketak baztertzea.
- 2 Edukiek neska-mutilak **afektibitatearen eta sexualitatearen inguruan hezte**a; identitateen, gaitasunen, orientazio sexualen eta familia-ereduen aniztasuna aurkeztuz. Era berean, emozio osasuntsuak eta berdintasunezko maitasun-harremanak sustatu behar dituzte, genero-indarkeria prebenitzeko.
- 3 Pertsonaiek **genero-estereotipoei ez erantzutea**, hala nola neskak hauskorrak, otzanak, mendekoak eta beldurtiak direla, edo mutilak ausartak, indartsuak eta bere buruarengan konfiantza handikoak. Hau da, eredu-aniztasuna erakustea.

- 4 Pertsonaia maskulinoek eta femeninoek **ekintza berberak** egitea, eremu publikoan (lanbideak, kirolak, zientziak, etab.), zein eremu pribatuan (etxea, pertsonak... zaintzea).
- 5 Pertsonaia femeninoek eta maskulinoek **protagonismo** eta garrantzi bera izatea eta haien presentzia-orekatua egotea.
- 6 Elkarrizketak **hizkera ez-sexistaz** idatzita egotea.
- 7 **Ilustrazioek** emakumezko eta gizonezko protagonisten arteko erreferentzien **berdintasuna islatzea**: arroparen koloreak, gorputz-adierazpenak, jostailuak, etab.



[Princesas de cuento](#)

Liburuak era errazagoan aztertua ahal izateko, Andaluziako Emakumearen Institutuak (2006) [taula erraz bat](#) proposatzen du. *Ikusi 10-13 orrialdeak.*

Baliabide inklusiboak

Badakigu askotan ez dugula behar adina denbora materialak egokitzeko. Hala ere, milaka eta milaka baliabide didaktiko egokitu daude, beste batzuek sortu dituztenak eta guk erabil ditzakegunak. Guk lana erraztu nahi dizuegu eta material inklusiboarekin hornitu nahi zaituztegu, kantuei eta literaturari dagokienez behintzat. Hala ere, zuen ardura da gelan erabiltzen dituzuen gainerako materialei buruz hausnartzea.

Kantak

Honako [padlet](https://padlet.com/garazimdi/Bookmarks) honetan euskarazko abestien bilduma aurki dezakezue klasean erabili ahal izateko. Abestiak gehitzeko aukera ere duzue!

<https://padlet.com/garazimdi/Bookmarks>

Literatura

Haur- eta gazte-literaturari dagokionez, aipatu dugun bezala, ipuin tradizioaletan sexismoa nabaria da. Alabaina, "Cuatro tuercas" editorialak, "[Bazen bitan](#)" bildumaren bidez, ipuin hauei bigarren aukera bat ematea erabaki du. Ipuinak euskaraz zein gazteleraz aurki ditzakezue. Horrez gain, erakunde ezberdinek ipuin-ez sexisten zerrendak sortu dituzte (adinaren arabera multzokatuak):



1. Natalia Enguix eta Cristina López (2014): *La mochila violeta. Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa.*
https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/4388_d_Guia-de-lectura-infantil-La-mochila-violeta.pdf
2. Kurutziaga ikastola: *Ipuin eta liburu ez sexistak.*
<https://kurutziagaikastola.eus/wp-content/uploads/2017/11/IPUIN-ETA-LIBURU-EZ-SEXISTAK.pdf>
3. Lekeitio barruan hazi: *Ipuin eta liburu ez sexistak aukeratzeko gida*
<http://www.lekeitio.com/es-ES/Ayuntamiento/Documents/GIDA%20SOA.pdf>

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Calvo, A. (2018). Kutsu matxista duten hainbat kantu tradizional moldatu dituzte Berrizen. *Eitb*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoak/6033240/bideoa-kutsu-matxista-duten-kantu-tradizional-moldatu-dituzte-berrizen/>
- Bonet, J. (2018). *¿Dónde están las mujeres en los libros de texto? / Covadonga Díazek elkarrizketatua*. AmecoPress. Hemendik eskuratua: <https://amecopress.net/Donde-estan-las-mujeres-en-los-libros-de-texto>
- Enguix, N. & López, C. (2014). *La mochila violeta. Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa*. Granada: Diputación de Granada.
- Euskaltzaindia. (d.b.). Androzentrismoa. In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 2020-12-10ean hemendik eskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=androzentrismoa&antzekoak=ez&option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai
- Gutiérrez, J. (2012). *Presencia y tratamiento de la mujer en libros de texto: ¿invisibilidad, transversalidad o patchwork políticamente correcto? Análisis y reflexión* (Trabajo de Fin de Máster). Universidad de Cantabria, Santander.
- Gutiérrez, J. (2018). *¿Dónde están las mujeres en los libros de texto? / Covadonga Díazek elkarrizketatua*. AmecoPress. Hemendik eskuratua: <https://amecopress.net/Donde-estan-las-mujeres-en-los-libros-de-texto>
- Instituto Andaluz de la Mujer (2006). *Vivir los cuentos. Guía para contar los cuentos*. Sevilla: Consejería para la Igualdad y el Bienestar Social
- Instituto Nacional de las Mujeres. (2007). *Glosario de género*. Hemendik eskuratua: http://cedoc.inmujeres.gob.mx/documentos_download/100904.pdf
- Varela, I. [LaTuerka] (2015). El Tornillo 2x22: "Princesas de cuento". [Bideoa]. YouTube: https://www.youtube.com/watch?v=JqY8KYbXwiA&list=PL_TQLyNxacHv14eD91rEFnc_oexMB0rrDa&index=71
- Varela, I. [LaTuerka] (2017). El Tornillo 5x27: "Música machista". [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=qEjQPIGcf08>
- López, A. (2018). *¿Dónde están las mujeres en los libros de texto? / Covadonga Díazek elkarrizketatua*. AmecoPress. Hemendik eskuratua: <https://amecopress.net/Donde-estan-las-mujeres-en-los-libros-de-texto>
- Reizabal, L. (2015). *Genero berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU.

UNESCO (2016). Guía para la igualdad de género en las políticas y prácticas de la formación docente. Hemendik eskuratua: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000260891?posInSet=4&queryId=07686c7a-91b1-497d-a53c-f4ac0e8529ee>

Valdivielso, S., Ayuso, A., Rodríguez, M. C., & Vila, E. S. (2016). Educación y género en la formación docente en un enfoque de equidad y democracia. In *Democracia y educación en la formación docente* (1. ed., 117–140 or.). Barcelona. Hemendik eskuratua: <https://mon.uvic.cat/greuv/files/2016/11/Llibre.-Democracia-y-educacion-copia.pdf>

V. eranskina. “Hitzik gabeko komunikazioa” irakurraia

Hitzik gabeko komunikazioa

Orain arte, hizkuntzak sexistak ez direla, baina horiek modu sexistan erabiltzen dugun gizarte androzentrikoan bizi garela ikusi dugu. Hori dela eta, euskaraz ari garenean ere betaurreko moreak jantzi behar ditugula ohartu gara. Gainera, jendarte androzentrikoak duen eragina eta eskolak honakoa irauarazi egiten duela antzeman dugu. Era berean, praktika desegokietatik (hizkuntza sexista), praktika egoki eta inklusiboetarako bidea egin dugu.

Dena den, hizkerak ez ezik hizkuntza ez berbalak ere areagotu dezake androzentrismoa edo genero desberdintasuna. Ikasleek eguneroko bizitzan estimulu sexista ugari jasotzen dituzte; beraz, eskola eremuan hauek desagerrarazten edo lantzen saiatu beharko ginatke. Ikus ditzakegun adibide ezberdinak!

Arropa eta koloreak

Urdina edo arrosa. Bata edo bestea. Jaiotzen garen momentutik edo gure gurasoek gure SEXUA dakiten momentutik kolore bat edo bestea aukeratzen digute, neskei arrosa eta mutilei urdina. Gorbeñaren (2016) esanetan: *“Gaur egun, bikote edo pertsona batek ume bat izango duenean, mundu guztiak galdetzen duen lehenengo gauza, «neska, ala mutila izango da?» da. Guztiak erantzun beharko luketen gauza, hurrengoa izan beharko litzateke: «ez dakit, oraindik ez daki hitz egiten».”*

Hau da, sexuaren arabera, umeen generoa erabakitzen dugu eta aldi berean genero estereotipoak sustatu. Baina, umea bera izan beharko litzateke generoa erabakitzen duena. Horregatik, eskolan, haiengan eragina murrizteko, sexuaren araberrako kolore, arropa (uniformeak), jolas... sailkapenak saihestea beharrezkoa iruditzen zaigu.



[El azul y el rosa](#)



[Arropak ez du generorik](#)

Zer esango zenioke (edo ez) egun baten gonarekin agertzen den mutilari?

Beharbada, guk pentsatzen dugun mutil hori neska da. Orduan zergatik ez gona? Jendarteak ezartzen du neskek daramatela gona ez? Edo gerta daiteke ikasle hori mutila izatea. Orduan zer? Mutil batek ez du gona eramateko eskubiderik ala?

Ikonoak

Garraio publikoan, iroletan, dendetako aldageletan... aurki ditzakegun elementuak dira. Eskolan ere honakoak erabiltzen ditugu komunak, aldagelak... bereizteko. Zein da ikono hauen arazoa?

Haurdun dagoen emakumeari edo haurra daramanari gona jartzen zaiola eta ondorioz, gonarik ez darama gizonezkoa bihurtzen dela (Fernandez & Sarriugarte, 2020). Beraz, arropari dagokion estereotipoa indartzeaz gain, emakumeek umeak zaintzeko beharraren rola ere indartzen dute. Gainera, "pertsona neutroa" izan beharko lukeen ikonoa, gizona da; hots, gizon itsua, gizonezkoa den agurea, ezgaitasun motorra duen gizonezkoa...



Beharbada, praktiki egokiena, gona ezabatzea litzateke; benetako hiritar neutroa lortzeko. Dena den, eskola eremuan, komunitan ikusten ditugun elementuak dira ikonoak eta gure proposamena "KOMUN KOMUNAK" sortzea litzateke, binarismotik at dauden generoen inklusibotasuna bermatzeko.

Hala ere, eskola aldaketa honetarako prest ez badago, gizon/emakume/X ikonoak, haien sinboloengatik edo letrengatik aldatzea proposatzen dugu, genero estereotipoak saihesteko.



Irudiak

Ipuinen arloan landu bezala, irudiak ez dira testu liburuak edo erabiltzen ditugun beste material oro apaintzeko baliabideak, baizik eta funtzio didaktikoa duten elementuak. Izan ere, edukiak ulertzen eta barneratzen laguntzen diguten materialak dira; etapa batzuetan (Haur Hezkuntzan bereziki) informazio iturri nagusia bihurtuz.

Ballarinen (2006, 79 or.) arabera, *"mezuak transmititzeko - sarritan estereotipoz jantziak- bereziki garrantzitsuak dira erabiltzen duten lengoaiagatik (ikonikoa). Gainera, pertzepzio- eta zentzumen-kanalen bidez jasotzen direnez, analisi kontziente eta esplizituei ihes egiten diote."*

Hortaz, helburua erabiltzen ditugun irudi guztietan genero-identitate aniztasuna, generoen presentzia orekatua, estereotiporik gabeko ekintzak eta abar ikustea izango litzateke. Hona hemen Emakundek identifikatutako eta [*"Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?"*](#) liburuxkan argitaratutako irudi desegokien adibideak.



ZIPRISTIN 3. MAILAKO LIBURUARI DAGOKIO.

1. Irudia: Gizonaren boterea eta emakumearen menpekotasuna (Emakunde, 1996)



HIZKUNTZA 6. MAILA testu-liburukoa da

2. Irudia: Lan-arloan: gizona protagonista, emakumea bigarren maila batean (Emakunde, 1996)



ZIPRISTIN 3. MAILA testu-liburukoa da.

3. Irudia: Ezaugarriak: Gizona "gogorra", emakumea "ahula" (Emakunde, 1996)



KUXKUX 4. MAILA testu liburukoa da.

4. Irudia: Gizonek ofizioa dute, emakumeak edertasuna lortu behar dute (Emakunde, 1996)



ZUBIA 4. MAILA testu liburukoa da.

5. Irudia: Ezagutzaren arloan gizonezkoak bakarrik (Emakunde, 1996)

Publizitatea

Nahiz eta publizitatea asko aldatu den azken hamarkadan, oraindik ere erabat sexistak diren iragarkiak ikus ditzakegu. Honako hau dio legeak publizitate desegokiari buruz:

“la que atente contra la dignidad de la persona o vulnere los valores y derechos reconocidos en la Constitución, especialmente a los que se refieren sus artículos 14, 18 y 20, apartado 4. Además los anuncios que presenten a las mujeres de forma vejatoria o discriminatoria, bien utilizando particular y directamente su cuerpo o partes del mismo como mero objeto desvinculado del reducto que pretende promocionar, bien su imagen asociada a comportamientos estereotipados que vulnere los fundamentos de nuestro ordenamiento coadyuvando a generar la violencia a la que se refiere la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género”. (Ley 34/1988, de 11 de noviembre, General de Publicidad; 1988)

Emakumearen Institutuaren Behatokiak publizitate sexistaren kasuak salatu ditu urteko txostenean. 2017ko txostenean ikus daitekeenez, kexen % 58,9 baino gehiago emakumeak publizitatean duen tratamenduarekin lotuta daude.



[Paco Rabanne PURE XS for him](#)



[Paco Rabanne PURE XS for her](#)

Lehenengo iragarkian, OIM txostenak salatzen duenez, emakumeak izaki kitzikagarriak dira eta ez dute emozioen auto-kontrolirik. Hala ere, emakumea protagonista duen iragarkian, haren gorputzari justifikaziorik gabeko tratua ematen zaio eta ez da aurkitzen loturarik promozionatzen den objektuarekin. Hori gauzatzean, genero-indarkeriaren aurkako babes-neurriak urratzen dira.

Ikus dezagun orain "Nike" kirol arropa markak 2019an argitaratutako iragarkia

Aldea nabaria da, ezta? **Emakumearen ahalduntzea** indartzen duen iragarkia da.



[Nike- Dream crazier](#)

Gehitzeko, gure ikasle gazteenei zuzendutako publizitateari erreparatzen badiogu, Gabonetako jostailuen katalogoak ere sexistak direla esan dezakegu. Urtero milaka salaketa jasotzen dituzten arren, gehienak betiko estereotipoetan oinarritzen dira, mutilentzako eta neskentzako jolasak bereiziz. Baina, horrek eraginik ahal du umeengan? Ikus ezazu bideoa eta hausnartu.



[Jostailuen iragarkiak berdintasuna lortzeko oztopo dira oraindik](#)

Hala ere, badirudi apurka-apurka kamioiak erabiltzen dituzten neskak eta sukaldatzen duten mutilak agertzen direla. Ei! Baina ez ezazue pentsa printzesaz mozorrotutako mutilik ikusiko duzuenik!

Irakasle moduan, ikasleek jasotzen duten publizitatearen kontzientzia izan behar dugu. Gainera, guk iragarki sexisten inguruko lanketa egitea edo noizean behin iragarki egokiak klasean erakustea proposatzen dugu; batez ere gabon garaia heltzen denean. Horrela, ikasleek ikusiko baitute, beste eredu batzuk izatea ere posible dela.

Jostailuak

Aurreko atalarekin lotuta, jostailuak eskolan erabiltzen ditugun (Haur Hezkuntzan batez ere) materialak dira eta ondo erabil ezean, estereotipoak eta genero diskriminazioa zabal dezakegu. Jostailuak ez dira neskenak edo mutilenak, ez dira onak edo txarrak; baina, horiek erabiliz, jarrera eta eredu sexistak ikasten dira maiz (Villa, 2015). Horregatik, ezinbestekoa da gomendioak aztertzea jokoaren erabilera ez-sexista egiteko eta jostailuei generoak esleitzea saihesteko (Rebolledo, 2009, 13 or.).

1

Generoen arteko harreman-eredu eta -patroi berriak eskaintzea, zereginak eta rolak trukatzu.

2

Jostailuak erabiltzea, horien banaketa tradizional sexuala gaindituz. Jostailua neskek zein mutilek erabil dezakete, eta partekatua bada, lankidetzaz sustatuko du.

3

Eginkizun sozial jakin batzuen balorazio negatiboak saihestea, hala nola etxeko lanak edo zaintzak.

4

Jostailua ez da erabili behar estereotipo sexistak erreproduzitzeko. Haurrek tradizioz debekatutako jostailuak eskura ditzaten sustatzea, beren gaitasunak osorik garatzeko

5

Estereotipatuak irudi femeninoak eta maskulinoak ez indartzea. Adibidez, indarra mutilekin lotzen duten irudi estereotipatuak ordezkatzea..

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Ballarín, P. (2006). *Guía de buenas prácticas para favorecer la igualdad entre hombres y mujeres en educación*. Junta de Andalucía: Granada.
- Eitb. (2014). *Jostailuen iragarkiak berdintasuna lortzeko oztopo dira oraindik* [Bideoa]. YouTube: https://www.youtube.com/watch?v=c6_TvmnBUnk
- Emakumearen Institutuaren Behatokia. (2017). *Resumen datos de actuaciones del OMI – 2017*. Hemendik eskuratua: https://www.inmujer.gob.es/observatorios/observimg/informes/docs/informe_2017.pdf
- Emakunde. (1996). *Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?* Hemendik eskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_folletos/e_u_emakunde/adjuntos/folletos.h01.testu.liburuen.bidez.zabaltzen.al.ditugu.sexu-baloreak.pdf
- Fernandez, J. & Sarriugarte, D. (2020). *Euskararen erabilera inklusiboa. 3. Gaia: Sexismotik harago: hizkera inklusiboa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko Berrikuntzen, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza
- Gorbeña, E. (2016). *Eta berdea zer?* *Berria*. Hemendik eskuratua: <https://www.berria.eus/paperekoa/5002053/029/002/2016-11-27/eta-berdea-zer.htm>
- Madina, T. (2020). *Arropak generorik ez duela adierazteko, neska-mutikoak gonarekin Oñatin*. *Goiena*. Hemendik eskuratua: <https://goiena.eus/oinati/1605018940017-arropak-generorik-ez-duela-erakusteko-neska-mutikoak-gonarekin-onatin>
- Nike. [Campaigns of the World] (2020). *Dream Crazier /#JustDolt* [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=zWfX5jeF6k4>
- Paco Rabanne. [Mindundis] (2018). *Pure XS for her de Paco Rabanne*. [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=y9ZccFN9ZEA>
- Paco Rabanne. [Perfumative] (2017). *Pure XS for him de Paco Rabanne*. [Bideoa]. YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=zsCD9cclK8>
- Rebolledo, M. (2009). *Juegos y juguetes para la igualdad. Guía didáctica para una educación no sexista dirigida a madres y padres*. Cantabria: Dirección General de la Mujer.

Varela, I. [LaTuerka](2014). *El Tornillo 1x11: "El azul y el rosa"* [Bideoa]. YouTube: https://www.youtube.com/watch?v=hyUKAmjD4c&list=PL_TQLyNxacHv14eD91rEFnc_oexMB0rrDa&index=104

Villa, V. (2015). *Mis gafas moradas. Coeducación infantil. Propuesta web para trabajar la coeducación en las aulas* (Grado Amaierako Lana). Universidad de Granada: Granada.

VI. eranskina. Ikastaroko atazak.

1. ATAZA: CURRICULUM EZKUTUA

Txostenean aipatu dugunez, curriculum ezkutua klasean era ez intentzionalen irakasten duguna da; hau da, beren-beregi planifikatu ez dena. Pentsa dezakezu eskolan ematen den curriculum ezkutuko adibiderik? Ondoren, bete itzazu taula:

EGOERAREN DESKRIBAPENA	
ZER DA ESATEN DENA? <i>Agerikoa=esplizitua</i>	ZER DA ESATEN EZ DENA? <i>Ezkutua=implizitua</i>
NOLA ALDATU? PROPASAMEN HEZKIDETZAILEA EGIN	

2. ATAZA: EZAGUTZEN TRANSMISIOA

Ikastaro honen bigarren atalean hizkuntzaren erabilera sexista batzuk identifikatu ditugu. Aldi berean, horiek ekiditeko eta hizkuntza inklusiboagoa erabiltzeko proposamenak bildu ditugu. Gainera, ohartu egin gara, ikasleak ere jarrera androzentrikoak edo sexistak barneratuta dituztela. Beraz, nahikoa al da gaur egun ditugun ikasleekin geuk bakarrik hizkuntza aldatzea?

Gure iritziz, ikasleak ere eraldaketa honen partaide bihurtu behar ditugu. Horregatik, hizkuntza edo jarrera sexisten kontzientzia hartu dezaten lortu behar dugu. Hortaz, gai honen inguruko ikasleentzako ariketa bat prestatzea eskatzen dizuegu.

IKASLE TALDEA		
IRAKASGAIA		
ARIKETAREN IZENA		
ARIKETAREN DESKRIBAPENA PAUSUZ PAUSU		
HELBURUAK	EDUKIAK	
MATERIALAK		

3. ATAZA: IPUINEN AZTERKETA

Ikastaro honen hirugarren atalean, eskolan aurki ditzakegun material sexisten adibideak aztertu ditugu. Gainera, ipuinen azterketa sakonki landu dugu eta horregatik, hirugarren ataza honetan ipuin baten azterketa egingo dugu.

Lehenik eta behin, ipuin bat aukeratu (zerrendetatik har dezakezu edo beste bat hautatu). Ondoren, Andaluziako Emakumearen Institutuak sortutako taularen bidez ipuina aztertu.

IPUINEN ZERRENDAK

https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/4388_d_Guia-de-lectura-infantil-La-mochila-violeta.pdf

<https://kurutziagaikastola.eus/wp-content/uploads/2017/11/IPUIN-ETA-LIBURU-EZ-SEXISTAK.pdf>

<http://www.lekeitio.com/es-ES/Ayuntamiento/Documents/GIDA%20OSOA.pdf>

<https://www.symbaloo.com/mix/ipuinakeuskaraz>

<https://www.symbaloo.com/mix/ipuinklasikoak>

<http://www.pinpilinekin.com/p/blog-page.html>

Ikusi adibide bat
17. orrialdean

IPUINAK AZTERTZEKO TAULA

http://www.juntadeandalucia.es/iam/catalogo/doc/iam/2006/23243_cuaderno.pdf

- Ipuina
- Idazlea
- Ilustrazioak
- Editoriala

PERTSONAI FEMENINOAK

- 1
- 2
- 3
- 4



PERTSONAI MASKULINOAK

- 1
- 2
- 3
- 4

PERTSONAIK ETA HISTORIA		
	PERTSONAI FEMENINOAK	PERTSONAI MASKULINOAK
ZENBAT?		
PROTAGONISTA		
DESKRIPZIOA		
AHAIDEAK		
NORTASUNA		
LANBIDEA		
ZER EGITEN DUTE?		
ZER ESATEN DUTE?		
ZER GERTATZEN ZAIE?		
ZER GERTATZEN ZAIE AMAIERAN?		
ESTEREOTIPOAK		
ONDORIOAK		

ATRIBUTU AFEKTIBOAK		
	PERTSONAI FEMENINOAK	PERTSONAI MASKULINOAK
GOGO-EGOERAK ISLATZEN DITUZTE		
BALORAZIO POSITIBOA ADIERAZI DUTE		
BALORAZIO NEGATIBOA ADIERAZTEN DUTE		
BOTEREA ADIERAZTEN DUTE		
MENDEKOTASUNA ADIERAZTEN DUTE		
BESTELAKOAK		
ONDORIOAK		

HIZKUNTZA		
	PERTSONAI FEMENINOAK	PERTSONAI MASKULINOAK
IZENONDOAK		
MASKULINO OROKORTZAILEA		
GENERO KUTSADURA		
HITANOAK		
SEXUAREN ARABERAKO TRATAERA EZBERDINA		
FEMENINOAREN ERABILERA PEIORATIBOA		
ONDORIOAK		

IRUDIAK		
	PERTSONAI FEMENINOAK	PERTSONAI MASKULINOAK
ZENBAT?		
KOLOREAK		
ZER EGITEN DUTE?		
OBJEKTUAK (jostailuak...)		
ESTEREOTIPOAK		

ONDORIOAK

IPUINAK ERAKUSTEN DITUEN BALOREAK

ESTRATEGIAK ETA BALIABIDEAK

KLASEAN ERABILTZEKO EGOKIA DA?

MAILA

NOLA?

4. ATAZA: MATERIALEN EGOKITZAPENA

Ikastaro honetan, eskolan aurki ditzakegun material sexisten adibideak aztertu ditugu. Aldi berean, horiek egokitzeko edo berriak sortzeko aholkuak landu ditugu. Beraz, oraingoan, ikasitakoa martxan jarriko dugu.

Lehenik eta behin, desegokia edo sexista den material bat aukeratu (kanta, ipuina, albistea, bertsoa, liburuko ariketa bat...) eta ondoren, material horren egokitzapena egin.

ESKOLA ETAPA		MAILA	
MATERIAL DESEGOKIA EDO SEXISTA			
<i>Deskribapena, testua, irudia, esteka...</i>			
MATERIALAREN EGOKITZAPENA			
<i>Deskribapena, testua, irudia, esteka...</i>			

VII. eranskina. Ikastaroko edukiak

1. Gaia: Hizkuntza eta generoan murgiltzen	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkidetza: betaurreko moreak eta feminismoa. - Oinarrizko kontzeptuen definizioa: sexu biologikoa, generoa, sexu-genero sistema, genero-identitatea, genero-adierazpena, sexu-orientazioa, sistema bitarra eta identitate-aniztasuna. - Hezkidetza eta genero-berdintasuna historian zehar. - Egungo legedia eta planak. - Ageriko curriculumaren eta ezkuaren arteko ezberdintasunak.
--	---

2. Gaia: Hizkuntza sexistatik hizkuntza inklusibora	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntzaren garrantzia - Euskara sexista al da? Álvaro García Meseguerren eta Miren Azkarateren iritziak - Adibide sexistetatik, adibide inklusiboetara: genero kutsadura (“-sa” atzikia eta generoaren erabilpen desorekatua), maskulino orokortzailea (<i>gizon</i> izena, “<i>izena</i> + <i>gizon</i>” hitz elkartuak, <i>giza-/anai-</i> oinarriak, bikote izenen ordeko plurala), hitanoaren erabilera desegokia, sexuaren araberako trataera ezberdinak eta femeninoaren erabilera peioratiboa.
---	---

3. Gaia: Androzentrismoaren aztarnak hezkuntzan	<ul style="list-style-type: none"> - Androzentrismoa - Emakumeen presentzia eskolako materialetan - Material hezkidetzailen aukeraketarako estrategiak: kantak eta literatura
---	--

4. Gaia: Hitzik gabeko komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-estereotipoen lanketa: arropa, koloreak eta jostailuak - Eskola eta ikonografia - Gelako materialetako irudien egokitasuna: testu-liburuak. - Publizitatearen eragina haurrengan
-------------------------------------	--

1. Taula: Ikastaroko edukiak blokeka

VIII. eranskina. Ikastaroko erabiltzaileen profila

	Ikasketak	Lehen Hezkuntzako Gradua Gorputz Hezkuntzako aipamena Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako Gradua
1. Erabiltzailea (gizona)	Lanbidea	Lehen Hezkuntzako, lehenengo zikloko, bigarren mailako tutorea eta ingeleseko irakaslea
	Zonaldea	Bizkaia, Bilboaldea
	Ikasketak	Lehen Hezkuntzako Gradua Gorputz Hezkuntzako aipamena Pedagogia Terapeutikoko aipamena
2. Erabiltzailea (gizona)	Lanbidea	Pedagogo Terapeutikoa
	Zonaldea	Bizkaia, Bilboaldea
	Ikasketak	Lehen Hezkuntzako Gradua Berrikuntza Lehen Hezkuntzako Eskolan aipamena
3. Erabiltzailea (emakumea)	Lanbidea	Lehen Hezkuntzako, bigarren zikloko, bosgarren mailako tutorea
	Zonaldea	Bizkia, Bilboaldea

2.Taula: Ikastaroko erabiltzaileen profila

IX. eranskina. Ikastaroko erabiltzaileen balorazioa

LEHENENGO ERABILTZAILEA

IRUZKINA

Ikastaro oso egokia da. Edukiak ondo daude sekuentziatuak, orden logikoa daukate eta beraien arteko loturak sendoak dira. Erreferentzia bibliografikoak ondo daude aukeratuta, eta baliabideak era askotakoak dira (mp3 audioak, internet bidezko bideoak, artikulua, eta abar).

Ikastaroan landutako edukiak 4 ikasgai ezberdinetan daude banatuta. Ikasgai bakoitzean eduki nagusi bat lantzen da, eta ikasgaia amaitzerakoan hausnarketara bideratuko digun ataza bat burutu behar dugu. Ataza hauek oso interesgarriak iruditu zaizkit. Hausnarketarako bidea ematen dute, eta hori da gure irakaskuntza jardunean aldaketak emateko lehen pausoa, hausnarketa sendoak burutzea.

Ikaragarri gustatu zait 2. gaia. Hizkuntza komunikatzeko dugun bide erabiliena da, eta sarritan ez gara konturatzen zeinen sexista izan daitekeen. Benetako inklusioa lortu nahi badugu, txiki txikitatik gure ikasleek hizkuntza inklusibo bat jaso behar dute. Horregatik, irakasleok esfortzu handia egin behar dugu gure hizkuntza inklusiboa izateko. Amaitzeko, bisualki oso landua dago ikastaroa. Oso erakargarria da.

HOBETZEKO PUNTUAK

- Bideo bidezko azalpenak eskaini. Ikastaro bat egiterakoan askoz erakargarriagoa da azalpenak pertsona batek ematea. Power Point bat izan dezakezu eta leiho txiki batean pertsonaren azalpena. Ondoren, kurtsoko apunte bezala PDF hauek igotzea. Horrela askoz ere osotuagoa bilakatuko da ikastaroa.
- Ikastaro amaieran galdetegi bat sortu, edukiak barneratu diren edo ez jakiteko.
- Ikasgai bakoitzaren amaieran kontzeptu mapa bat sortu, hitz gakoak lotuz, edukiak eskematikoki ikusi ahal izateko.
- Ikastaroaren aurkibide bat egin.
- Ikastaroaren amaieran, landutako eduki guztien eskema edo Visual Thinking bat burutu, eduki guztiak orri bakarrean bisualki ikusi ahal izateko.

BIGARREN ERABILTZAILA

Lehenengo atazari eta gaiari dagokionez, oso garrantzitsua ikusten dut curriculum ezkutuaren hizpidea, izan ere, horrelako jarrerak, baloreak, jarduteko erak... ez dira dokumentu ofizial batean agertzen eta horiek dira, benetan, gizarte on bat eraikitzeke funtsak. Oso ondo ikusten dut lehenengo gaian egin duzun atalen banaketa, ikastaroaren zergatia eta oinarrizko kontzeptuetatik, irakasle bezala zer egin ahal dugun azaldu arte.

Alde teorikoak oso ondo daude jorratuta. Egingo nukeen gauza bakarra eta askok eskertuko dutena, materiala ere eskura ematea izango litzateke, hau da, adibide errealak jarri edo zu klasean egin ahal dituzun jarduera batzuk eskaini. Ikastaroak oso interesgarriak izan daitezke baina benetan klaseratzeko materialak edo adibideak dira gehien balio dutenak eta erabilgarrienak direnak.

Bigarren gaia asko gustatu zait, izan ere, nahi gabe hizkuntza sexista bihurtzen dugu, adibideak jarri dituzu, ikusteko bideoak eta marrazkien adibideak.

Hirugarren ataza eta gaia, materialaren azterketan datza. Erabili dituzun taulak primeran daude, izan ere, nortasuna, bakoitzaren rola, dituzten ondorioak etab... agertzen dira. Materiala argi dago lehentasuna daukala irakasteko momentuan, baina ondo egongo litzateke ere, adibide edo jarduera osagarri bezala, jostailuen aldizkariak edo mozorroenak ere aipatzea. Negu garaian batez ere, oso ohikoak dira gure ikasleen artean. Han agertzen diren jolasak eta umeak oso estereotipatuak daude, adibidez, kotxe bat saldu nahi badute, mutil bat agertuko da, eta ostein, printzesa bat saldu nahi badute, neska. Berdin gertatzen da inauteriak heltzen direnean, super-heroien mozorro guztiak mutilak izaten dituzte, eta printzesenak, ordea, neskak. (Hau ideia bezala da, osagarria).

Laugarren ataza eta gaian hirugarren atazan esandakoaren berdina, esango nuke, iragarki batzuk erabiltzen dituzten rolak baliagarriak izango lirateke, adibidez, garbiketa produktu bat eskaini nahi badute, gehienetan, emakumeak agertzen dira, eta kirolei lotutako gauzak saldu nahi badituzte, gizonezkoak.

Gainerako gauzei dagokionez oso ondo ikusten dut egindako lana.

HIRUGARREN ERABILTZAILA

Gaur egun, “hizkuntza eta generoa” nahiz eta gai ezaguna izan, honen inguruko ezagutza oso eskasa ikusten dut, bai irakasle on artean bai ikasle on artean. Dakigun bezala, eskola etapa oso garrantzitsua da, adin horietan ikasle on nortasuna garatzen hasten baita. Beraz, ikastaro on oso ondo azaltzen den moduan, gu irakasle on moduan prozesu horretan prest egon behar gara, konfiantzazko eremuak sortzeko.

Ikastaro on bigarren gaian agertzen den moduan, egia da gure ikasleek genero kutsadura pairatzen dutela. Honen adibide bat ematearren, inauteriak aipatuko nituzke. Gure ikastolako inauterietan neska guztiak printzesaz eta mutil guztiak muskuluekin eta ezpatekin etorri ziren. Egun horretan ez nintzen gelditu horren inguruan hausnartzeko. Hala ere, ikastaro on horren inguruan hausnartzera bultzatu dit. Gu irakasleak garen heinean, eredu onak eskaini behar dizkiegu ikasleei. Zergatik? Urteetan zehar ikasleek ezagutza hori ez dutelako jaso eta horren ondorioa egunero ikusten diren estereotipoak dira.

Hirugarren gaiaren harira, egia da hezkuntza sisteman androzentrismoaren aztarnak pairatzen direla. Zintzoa izanda, ikastaroa irakurri baino lehen, androzentrismo hitza ez nuen ezagutzen. Horrek esan nahi du irakasleek honen inguruan dugun ezagutza pentsatzen nuena baino eskasagoa dela. Garazik bere ikastaroan argi eta garbi adierazi duen moduan, ez da hain zaila gelan erabiltzen ditugun materialak edota baliabideak egokitzea.

Arestian aipatu dudak bezala, eskola etapa oso garrantzitsua den heinean, ezinbestekoa da irakasleek honen inguruan jakintza osoa izatea ikasleek gure laguntza jaso ahal izateko. Hori dela eta, irakasle on jakinduria handitzeko ikastaro oso lagungarria eta ezinbestekoa ikusten dut. Aipatzekoa bada ere, ez nukeela ezer aldatuko ezta informazioa edota baliabide gehiago gehituko. Izan ere, ikastaroari esker, generoaren inguruan gehiago ikertzen jarraituko dut betiere ikasle on erreferente on bat izateko helburuarekin.